

### 3. Kasu praktikoa

A, B, C eta Dk Donostian denda bat irekitzeko asmoa dute, bertan beraiek ekoiztutako kalitatezko eta artisauek moduan egindako jertseak saltzeko. Bakoitzak 3.000 € sartzeko dituzte Kutxan kontu komun batean. Adosten dute denak bertan lan egingo dutela eta denen artean kudeatuko dela negozioa. Kontratua eskritura publikoan jasotzea eta inskribatzea erabaki dute, baina tramite horiek aurrerago egitea pentsatzen dute.

Ak zentroan egokia iruditzen zaion lokal bat aurkitu du eta Pri (jabea) alokatu dio A, B, C Ehunak baltzuen izenean. Pk C ezagutzen du eta besterik gabe kontratua sinatzen du. B eta C ados daude Ak egindakoarekin. D Hegoamerikar dago eta ez du kontratuaren berri izan.

Bi hilabete beranduago D bere bidaiatik itzultzen da eta egoera hau aurkitzen du: jarri zuten diru guztia erabilia izan da lehengo hilabeteko errenta eta fidantza ordaintzeko eta jertseak egiteko lehengaiak erosteko. Pk bigarren hilabeteko errenta eskatzen dio (1.000 €) esanez Ari eskatu diola baina ez duela erantzunik jaso. Pk Cri ere eskatu dio ordainketa.

Ordaindu behar dute Ck eta Dk errenta hori?

Hasierako zailtasunak gainditu ondoren, negozioak irabaziak ematen ditu. Baltzu kontratua inskribatu egiten da ABC eta Cia S.C. izenarekin. Dena den Dk baditu bere zalantza sozietate hauen erantzukizun maila altuagatik eta komanditario bihurtzea planteatzen du. Aldi berean bere laguna den Fren bazkide izateko interesa aipatzen du, hori bai erantzukizun mugatuarekin.

Urriak 1ean bazkide guztiek adosten dute sozietatea eraldatzea, Dk komanditario bezala jarraitzea eta F komanditario bezala onartzea. Bazkide komanditario bakoitzak 10.000 €ko ekarpena egingo du. Dren kuota kolektibo bezala 9.000tan baloratzen da eta hori da berak "jartzen" duena. Fk momentu horretan 8.000€ jartzen ditu. Baltzuen izena aldatzen da ABC eta Cía S.Com izango da aurrerantzean. Azaroak 1ean inskribatzen da aldaketa Erregistroan.

Azaroak 4ean Mk neozko errotulu bat jartzen du dendan. Momentu horretan A dago dendan eta onartzen ditu egindako lana eta 3.000€ko faktura. Baina denbora pasa da eta sozietateak ez du diru hori ordaintzen. Mk D eta Fri eskatzen die ordainketa.

Urriak 5ean Nk 100 jertse beltz, merino-ilekiz egindakoak, eskatzen ditu. Hilabete pasa ondoren oraindik ez dira bidali (naiz eta astebeteko epea adostu) eta Nk D eta Fri galdatzen die kontratuaren betetzea.

Xk uztailetik 2.000 €ko faktura bat du kobratu gabe artile hornidura batengatik. Berak ere D eta Fri galdatzen die ordainketa.

Zein da D eta Fren erantzukizuna?

